# GURE AUZOAK BERBETAN
Bisita gidatu antzeztuak

# NUESTROS BARRIOS A ESCENA
Visitas guiadas teatralizadas



Bilbao

Gure barrutien historiak bizia hartuko du. Presta zaitez Bilboko hainbat auzotako gertaera historikoak, bitxikeriak eta pasadizoak ezagutzeko, horien historiaren parte izan ziren pertsonaien eskutik. Arrazoi gehiago behar al dituzu gure auzoak ezagutzeko edo berrezagutzeko? Plan ezin hobea da Bilboz gozatzeko eta gure historiaren protagonistek egin zutenen aurrean harritzeko.

Antzerkiaren emozioa eta Uriaren aberastasun kulturala batzen dituen esperientzia paregabea.

## Ez zaitez etxean geratu, zure zain gaude!

La historia de nuestros distritos va a cobrar vida. Prepárate para conocer hechos históricos, curiosidades y anécdotas de distintos barrios bilbaínos, de la mano de personajes que formaron parte de su historia. ¿Necesitas más razones para descubrir o redescubrir nuestros barrios? Es un plan perfecto para disfrutar de Bilbao y dejarte sorprender por los y las protagonistas de nuestra historia en vivo y en directo.

Una experiencia única que reúne la emoción del teatro con la riqueza cultural de la Villa.

## No te quedes en casa, ¡te esperamos!

**BISITA GIDATU ANTZEZTUAK / VISITAS GUIADAS TEATRALIZADAS**
(Doakoak eta oinez / Gratuitas y a pie)

Maiatza / Mayo: **Zorrotza**

Ekaina / Junio: **Indautxu - Otxarkoaga**

Uztaila / Julio: **Iralabarri - Uribarri**

Iraila / Septiembre: **San Adrián - Begoña**

Urria / Octubre: **Deustu**

Izen emateak / Inscripciones:
**www.bilbaoizan.eus**

## Izen emateak / Inscripciones:

## **www.bilbaoizan.eus**

Bisita gidatua ezin bada egin erreserbatutako egunean eta orduan, bilbaoizan.eus helbidean, "plaza bertan behera utzi" aukera erabiltzea eskatzen dugu, plaza hori beste pertsona batek bete ahal izateko. Plazak mugatuak direnez gero, ahal dugun guztia egin dezagun guztion artean taldeak beti osatuta egon daitezen.

En caso de no poder asistir a la visita guiada en el día y la hora reservada, solicitamos que se haga uso de la opción “darse de baja”, en la dirección bilbaoizan.eus, para que esa plaza pueda ser ocupada por otra persona. Dado que las plazas son limitadas, hagamos lo posible para que los grupos estén siempre completos.



# ZORROTZA

**MAIATZAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA**
Ba al zenekien duela urte batzuk kokoz betetako itsasontziek Zorrotzako kaian porturatzen zirela? Eta nor den Frai Juan de Zumarraga? Utzi Gurutzeri, gure gidari boluntarioari, auzoaren historian barrena eramaten, eta galdera hauen erantzunak eta Zorrotzako beste hainbat bitxikeria ezagutuko dituzu. Garai batean auzoan bizi izan zirenekin edo bere eraikuntzan parte hartu zutenekin egingo duzu topo eta haien eskutik historian zehar bidaiatzeko eta lehen pertsonan bizitzeko aukera izango duzu.

**Izen-ematea noiztik aurrera:** maiatzaren 13tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Azokako parkea

**Zelan heldu:** Renfe: C1, C2 - Bilbobus: 18, 85, 88

**SEGUNDA QUINCENA DE MAYO**
¿Sabías que hace años los barcos cargados de cocos atracaban en el muelle de Zorrotza? ¿Y quién es Fray Juan de Zumarraga? Déjate llevar por Gurutze, nuestra guía voluntaria, a través de la historia del barrio y descubrirás las respuestas a estas preguntas y otras tantas curiosidades de Zorrotza. Te encontrarás con quienes habitaron el barrio en otro tiempo o participaron en su construcción, y de su mano viajarás por la historia y tendrás la oportunidad de vivirla en primera persona.

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 13 de mayo, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** parque del Ferial

**Cómo llegar:** Renfe: C1, C2 - Bilbobus: 18, 85, 88

**BISITA GIDATU ANTZEZTUAK /** VISITAS GUIADAS TEATRALIZADAS
**(Doakoak eta oinez** / Gratuitas y a pie)

# INDAUTXU

**EKAINAREN LEHENENGO HAMABOSTALDIA**
Indautxun barrena ibiliko gara, Urian bizi izan diren pertsonaia “txireneetako” batzuekin batera. Obra arkitektoniko handiez, kirol garaipenez edo “villagodioak” jateaz egingo dugu berba. Hori guztia eta askoz gehiago izango da bidaia honen parte. Bertan auzoaren historiaren zenbait bitxikeria aurkituko dituzu eta baliteke baloiaren goi mailako izar batekin jolasteko aukera izatea. Aliron, Aliron...!

**Izen-ematea noiztik aurrera:** maiatzaren 27tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Arriquibar plaza

**Zelan heldu:** Metro: Indautxu, Bilbobus: 18, 62, 76

**PRIMERA QUINCENA DE JUNIO**
Vamos a recorrer Indautxu junto con algunos de los personajes más “txirenes” que han habitado la Villa. Hablaremos de grandes obras arquitectónicas, de triunfos deportivos o de comer “villagodios”. Todo eso y mucho más formarán parte de este viaje, en el que descubrirás algunas curiosidades de la historia del barrio y puede que, incluso, puedas jugar con un verdadero as del balón. ¡Alirón, Alirón....!

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 27 de mayo, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** plaza de Arriquibar

**Cómo llegar:** Metro: Indautxu, Bilbobus: 18, 62, 76

# OTXARKOAGA

**EKAINAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA**
Lore horiak, “txino” bat, txabolak, Erdi Aroko iheslariak, auzo-mugimenduak, donuts fabrika bat, eliza baten aurrean dagoen monumentu komunista bat eta gizarte-larrialdiko plan bat. Benetan posible al da hori guztia leku berean izatea? Zatoz ikustera Otxarkoaga auzoan zehar ibiltzen, eta haren historiari eta bertan parte hartu zuten pertsonei buruz ikasten dugun bitartean.

**Izen-ematea noiztik aurrera:** ekainaren 17tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Kepa Enbeitia “Urretxindorra” plaza

**Zelan heldu:** Metro: L3 Otxarkoaga, Bilbobus: 03, 13, 30, 34, 38, 43

**SEGUNDA QUINCENA DE JUNIO**
Flores amarillas, un “chino”, txabolas, fugitivos medievales, movimientos vecinales, una fábrica de donuts, un monumento comunista frente a una iglesia y un plan de urgencia social. ¿De verdad es posible que todo esto exista en un mismo sitio? Ven a verlo mientras recorremos el barrio de Otxarkoaga y aprendemos sobre su historia y las personas que participaron en ella.

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 17 de junio, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** plaza Kepa Enbeitia “Urretxindorra”

**Cómo llegar:** Metro: L3 Otxarkoaga, Bilbobus: 03, 13, 30, 34, 38, 43

# IRALABARRI

**UZTAILAREN LEHENENGO HAMABOSTALDIA**
Bilbon bada ogi fabrika baten ondoan sortu zen auzo moderno bat. Orain, ingeles estiloko etxeen kolorezko fatxadak erretratatzen dituzten instagramerrak eta turistak ibiltzen dira bertan. Hurbildu zaitez *Irala-barri*ra bere historia eta auzoan bizi izan ziren eta hura eraikitzen lagundu zuten pertsonak ezagutzeko. Ba al zenekien bertan “Emakume modernoen senidetasun” bat eta “Lasaitasunaren sozietate” bat egon zirela? Ah, eta ez ahaztu xentimo pare bat eramatea!... agian beharko dituzu.

**Izen-ematea noiztik aurrera:** uztailaren 1etik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Ugalde kalearen eta Irala kalearen arteko plaza

**Zelan heldu:** Bilbobus: 57, 75

**PRIMERA QUINCENA DE JULIO**
Hay en Bilbao un barrio moderno que nació al lado de una fábrica de pan y que ahora frecuentan instagramers y turistas que retratan las fachadas de colores de sus casas de estilo inglés. Acércate a *Irala-barri* para descubrir su historia y conocer a las personas que habitaron el barrio y contribuyeron a su construcción. ¿Sabías que hubo allí una “fraternidad de mujeres modernas” y una “sociedad de la templanza”? ¡Ah, y no olvides llevarte un par de céntimos!... tal vez los necesites.

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 1 de julio, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** plaza entre la calle Ugalde y calle Irala

**Cómo llegar:** Bilbobus: 57, 75

# URIBARRI

**UZTAILAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA**
Diotenez, Uribarri auzoa baserriz eta txakolinez betetako lekua izan zen. Ondoren, auzoa eraldatu zuten industriako lantegiak eta etxebizitzak eraiki zituzten. Zatoz lehengo eta oraingo Uribarri ezagutzera historia lehen pertsonan bizi izan zutenen eskutik. Ez pentsatu gehiago eta lagun gaitzazu Artxandako mendi-hegaletan zeharreko abentura txiki honetan!

**Izen-ematea noiztik aurrera:** uztailaren 15etik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Uribarriko Eskoletako landa

**Zelan heldu:** Metro: L3 Uribarri, Bilbobus: 22, 28

**SEGUNDA QUINCENA DE JULIO**
Dicen que el barrio de Uribarri fue antes un lugar lleno de caseríos y txakolís. Después vinieron la industria y la edificación de viviendas que transformaron el barrio. Ven a conocer el Uribarri de antes y el de ahora de la mano de quienes vivieron la historia en primera persona. ¡No te lo pienses más y acompáñanos en esta pequeña aventura por las laderas de Artxanda!

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 15 de julio, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** campa de las Escuelas de Uribarri

**Cómo llegar:** Metro: L3 Uribarri, Bilbobus: 22, 28

# **BISITA GIDATU ANTZEZTUAK /** VISITAS GUIADAS TEATRALIZADAS
## **(Doakoak eta oinez** / Gratuitas y a pie)

# SAN ADRIÁN

**IRAILAREN LEHENENGO HAMABOSTALDIA**
Pagasarriren oinetan dagoen San Adrianek meategiez eta erromeriez betetako iragana du. Zatoz bertako jendea zelan bizi zen ezagutzera. Zertan lan egiten zuten eta euren jaiak zelangoak ziren kontatuko dizute, baita bitxikeriak ere, eta agian zereginen batean lagundu beharko duzu... Ez galdu San Adrián eta bere historia ezagutzeko aukera protagonista izan zirenen eskutik!

**Izen-ematea noiztik aurrera:** irailaren 2tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** San Adrian Parrokiaren atzekaldeko plaza

**Zelan heldu:** Bilbobus: 57, 71, 75, 76

**PRIMERA QUINCENA DE SEPTIEMBRE**
San Adrián, a los pies del Pagasarri, tiene un pasado de minas y romerías. Ven a conocer cómo vivían sus gentes. Te contarán en qué trabajaban y cómo eran sus fiestas, también curiosidades, y tal vez tengas que ayudar en alguna tarea.... ¡No te pierdas está oportunidad de conocer San Adrián y su historia de la mano de quienes la protagonizaron!

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 2 de septiembre, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** plaza en la trasera de la Parroquia de San Adrián

**Cómo llegar:** Bilbobus: 57, 71, 75, 76

# BEGOÑA

**IRAILAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA**
Batzuetan bidaiak konplikatu egiten dira, batez ere denboran zeharreko bidaiak badira! Baina, batzuetan, konplikazioak dira bidaiako gauzarik dibertigarriena. Gerra baten erdian ezkutuko trama baten berri izatea, emakume zigarro-saltzaile erreibindikatibo batekin berba egitea edo zu jaio aurretik hartutako argazki batean irtetea... eta hori guztia Begoña auzotik irten barik! Beno, auzoa orain! Izan ere, duela 100 urte arte, hau Begoñako Errepublika zen. Animatu etortzera eta homologatutako denboraren bidaiari bihurtzera!

**Izen-ematea noiztik aurrera:** irailaren 16tik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** S. S. Juan XXIII plaza

**Zelan heldu:** Metro: Igogailua Begoña, Bilbobus: 03, 30, 38, A9

**SEGUNDA QUINCENA DE SEPTIEMBRE**
A veces los viajes se complican, ¡sobre todo si son en el tiempo! Pero bueno, a veces las complicaciones son lo más divertido del viaje. Enterarte de una trama secreta en mitad de una guerra, conversar con una cigarrera reivindicativa o salir en una foto que se tomó antes de que nacieras... y ¡todo eso sin salir del barrio de Begoña! Bueno, ¡barrio ahora! Porque hasta hace justo 100 años, esto era la República de Begoña. ¡Anímate a venir y convertirte en viajero o viajera del tiempo homologado!

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 16 de septiembre, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** plaza S.S. Juan XXIII

**Cómo llegar:** Metro: Ascensor Begoña, Bilbobus: 03, 30, 38, A9

# DEUSTU

**URRIAREN LEHENENGO HAMABOSTALDIA**
Zer hobe deustuarra izatea eta Erriberan bizitzea baino, itsasontziak igarotzen ikusteko eta "gaileta-egileak" ezagutzeko! Antzinako Deustuko Errepublika Bilborekin bat egin zeneko mendeurrena da eta elizate zaharretik ibili eta bere historiaren protagonistak ezagutuko ditugu. Agian dantzatzen ikasiko dugu edo kantu zaharrak entzungo ditugu, beharbada begiko gaitza zelan saihestu ere ikasiko dugu. Zure zain gaude!

**Izen-ematea noiztik aurrera:** irailaren 30etik aurrera, 9:00etatik aurrera, www.bilbaoizan.eus helbidean

**Bisitaren topalekua:** Deustuko zubia, 13

**Zelan heldu:** Metro: Deustu, Bilbobus: 01, 10, 13, 18, 71

**PRIMERA QUINCENA DE OCTUBRE**
¡Quién pudiera ser de Deusto y vivir en la Ribera, para ver pasar los barcos y también las "galleteras"! Es el centenario de la anexión a Bilbao de la antigua República de Deusto y vamos a recorrer la antigua anteiglesia y conocer a los y las protagonistas de su historia. Puede que aprendamos a bailar o escuchemos antiguas canciones, tal vez hasta descubramos cómo evitar el mal de ojo. ¡Te esperamos!

**Fecha de inicio inscripciones:** a partir del 30 de septiembre, a las 9:00, en www.bilbaoizan.eus

**Punto de encuentro:** puente de Deustu, 13

**Cómo llegar:** Metro: Deustu, Bilbobus: 01, 10, 13, 18, 71

Txio Ta Txio
100 URTE ANEXIOAK
BEGOÑA · DEUSTU

**Aurten, Deustu eta Begoñako elizateak Bilbora anexionatu zireneko mendeurrena ospatzen da. Horregatik, "Txio Ta Txio" bideoek anexio horiei buruzko istorio edo pasadizo laburrak kontatuko dizkigute, erraz ikusteko eta partekatzeko moduko formatu batean. Irailetik aurrera, jarrai gaitzazu sare sozialetan, deskubritu edizio honetako bideoak eta... konpartitu!**

Este año se conmemora el centenario de la anexión de las Anteiglesias de Deustu y de Begoña a Bilbao. Por este motivo, los videos "Txio Ta Txio" nos contarán pequeñas anécdotas o historias sobre esas anexiones, en un formato amable para ver y compartir. A partir de septiembre, síguenos en nuestras redes sociales y descubre los videos de esta edición y... ¡compártelos!

Bilbao Izan    BilbaoKultura

**GARRANTZITSUA: Bisita egiteko, kontutan hartu beharrekoa:**

- Kalean, aire zabalean, oinez egiten den bisita gidatua da. Hori dela eta, euria egiten badu, jarduerari eusten zaio, nahiz eta pixka bat alda daitekeen.

- Bisita gidatuek ordu eta erdiko iraupena izango dute, gutxi gora behera, eta egun batzuetan euskaraz izango dira eta beste batzuetan gazteleraz.

- Plazak bilbaoizan.eus helbidean erreserbatuko dira. Izena ematerakoan, inskribatzen direnen datu pertsonal hauek idatzi beharko dira: izen – abizenak, NAN zenbakia, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia.

- Bisita gidatua egin ahal izateko, beharrezkoa izango da aldez aurretik izena emanda egotea. Plaza erreserbatu ez duenak ezingo du egin bisita.

- Bisitan zehar errazago entzuteko, erradiogida bana emango zaie parte-hartzaileei. Horregatik, hasiera-ordua baino 15 minutu lehenago elkargunera iristeko eskatzen dizuegu; izan ere, erradiogida entregatzeko, parte-hartzaile bakoitzaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentu bat eskatuko da (NAN, gidabaimena...).

- Gutxienez 14 urte eduki behar dira bisita egiteko.

- Bisita gidatua ezin bada egin erreserbatutako egunean eta orduan, bilbaoizan.eus helbidean, "*plaza bertan behera utzi*" aukera erabiltzea eskatzen dugu, plaza hori beste pertsona batek bete ahal izateko. Plazak mugatuak direnez gero, ahal dugun guztia egin dezagun guztion artean taldeak beti osatuta egon daitezen.

Bisitak egiteko aukeratutako ibilbideak mugikortasun urriko pertsonek egin ditzakete

Bisita egingo den auzo bakoitzean, talde batek zeinu hizkuntza interpretea izango du. Irudi honek zer taldek izango duen interpretea adierazten du, bilbaoizan.eus webgunean.

**IMPORTANTE: Para la visita, tengan en cuenta que:**

- Es una visita guiada que se realiza a pie por la calle, al aire libre. Por ese motivo, en caso de lluvia se mantiene la actividad, aunque puede ser ligeramente modificada.

- Las visitas guiadas tendrán una duración de hora y media, aproximadamente. Y algunos días serán en euskera y otros en castellano.

- La reserva de plazas se realizará en la dirección bilbaoizan.eus. A la hora de hacer la reserva, se solicitarán los siguientes datos personales de cada participante: nombre y apellidos, número de DNI, email y número de teléfono.

- El día de la visita guiada será necesario que la persona esté inscrita con anterioridad. Quién no haya reservado plaza no podrá realizar la visita.

- Para facilitar la escucha durante la visita, se facilitará una radioguía a cada participante. Por este motivo, se solicita llegar al punto de encuentro 15 minutos antes de la hora de inicio, ya que para la entrega de la radioguía se solicitará un documento acreditativo de la identidad (DNI, carnet de conducir...).

- 14 años es la edad mínima para la realización de las visitas.

- En caso de no poder asistir a la visita guiada en el día y la hora reservada, solicitamos que se haga uso de la opción "*darse de baja*", en la dirección bilbaoizan.eus, para que esa plaza pueda ser ocupada por otra persona. Dado que las plazas son limitadas, hagamos lo posible para que los grupos estén siempre completos.

Los recorridos elegidos para las visitas serán accesibles y podrán realizarlos personas con movilidad reducida.

En cada barrio a visitar, uno de los grupos contará con intérprete de lengua de signos. Este símbolo indica, en la web bilbaoizan.eus, qué grupo va a contar con intérprete.

BILBAO BALIOEN HIRIA

BILBAO CIUDAD DE VALORES

*Bilbao Izan* erabat bat dator Bilbao Balioen Hiria proiektuarekin, Bilbon balio partekatuen esparru bat sustatu nahi baitu.
https://balioenhiria.bilbao.eus/eu

*Bilbao Izan* está plenamente comprometido con el proyecto Bilbao Balioen Hiria, que aspira a fomentar un marco de valores compartidos en la ciudad de Bilbao.
https://balioenhiria.bilbao.eus/es

**Laguntzailea / Colabora:**

Noticias de Bizkaia Deia

www.bilbaoizan.eus

Bilbao Izan

BilbaoKultura

(..) izan BILBAO ondarearen sustapena promoción del patrimonio

Bilbao